# Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 30a / 743. zenbakia

# 2005 urteari begiratua

## ARRASATE

Txirritola

19. orrialdean


# ION LEIHOAK

P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA

- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK • ZOLUAK

K-21





20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: **943 79 11 35** Faxa: **943 77 31 20**

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: **945 26 71 73**

**Posta elektronikoa: ion.a.@euskalnet.net • www.ventaion.com**

JOMA

Urte Berri on!

**DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK,
GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...**

JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A
Gipuzkoa Etorbidea, 32
20500 ARRASATE



*Gabonak hortxe daude
eskinako bueltan
Olentzero badator
maldan behera kantan*

*Hurrengo egunean
jaiki ta hor bertan
Zuhaitz azpian daude
opariak etxetan.*

*Izar / Ander*

arrasate
Herri Eskola

Arrasate
INSTITUTUA



# URTARRILA



*"Aitak animatu ninduen margotzera; nik egindako guztia zor diot"*

**BEGOÑA GARAIZABAL** / MARGOLARIA

2005-01-14



*"Entrenamenduetan egiten dudana txapelketetan egitea falta zait"*

**JONATHAN PEREZ** / ATLETA

2001-01-21

## HILEKOESALDIA

**"Denbora luzea behar da apaiztea erabakitzeko: nik lau urte eman nituen erabaki hori hartzen"**

**PEDRO LUIS URANGA** / APAIZA

2005-01-14

## HILEKODATUA

# 38

**MILIOIKO AURREKONTUA 2005 JARDUNALDIRAKO**

38 milioiko aurrekontua onartu zuen udalbatzarrak 2005. urterako. Kopuru horretatik 35 milioi Udalaren jardunerako. /05-01-14



### Al Andalus elkartearen III. Cante Flamenko Txapelketa

Urtarrilean hasi eta otsail bukaerara arte iraun zuen Cante Flamenkoko Txapelketak. Espainiako Estatuko 18 lagunek hartu zuten esku, eta maila handia izan zen. Otsailaren 20an egin zuten finala, eta Amaia antzokia goraino bete zen. Finalean emakumeek erakutsi zuten maila onena. Isabel Rico kordobarrarendako izan zen sari nagusia. /2005-01-21

**SEXOLOGIA ZERBITZUAK WEBGUNEA**

↑ Sexuaren edo sexualitatearen gaineko edozein kezka argitzeko bide berria zabaldu zuten webgunearekin. /2005-01-14

**ELURRAREN ERAGINEZ, AUZO BATZUK TXARTO**

↓ Urtarrilean gogotik bota zuen elurra, eta horren eraginez auzo batzuetan zailtasunekin ibili ziren. /2005-01-28

## AIPAGARRI



**IÑAKI RIVIERE**
**Margolaria**

Aspaldian margolari horren berri izan barik, Iñakik kontatu zigun Granadako Laberinto eta Madrilgo Rina Bowen galeriendako lanak egin dituela. /2005-01-21



**OXEL ETXEBARRIA**
**Errugbi jokalaria**

Oxel izan zen joan den denboraldian Arrasateko taldean puntu gehien egin zituen jokalaria. Hala ere, Estatuko Mailan urte gogorra izan zuten /2001-01-28



**PATXI EGIDAZU**
**Arrasateko aitona**

Urtarrilaren 19an hil zen Arrasateko aitona, 103 urterekin. Udalako Dolara baserrian jaioa, 98 urterekin joan zen lehenengoz medikuarengana. /2001-01-28

INGURUMENA

### Monterrongo zuhaitzak Belgikatik ekarri zituzten

Iñigo Igiñiz adituaren gidaritzapean, Udalak erabaki zuen Belgikako mintegi bati erostea Monterronerako ekarri beharreko zuhaitzak. Izan ere, botatakoak bezain zuhaitz handiak ezin ziren ekarri eta birlandatu. Hain zuzen ere, 40 bat landatu zituzten Monterronen. /2001-01-28

GIZARTEA

### Kalamuaren gaineko hausnarketa egiteko ekimenak egin zituzten

Kalamuaren kontsumoa geroago eta ohikoagoa dela ikusita, zenbait ikastetxetako gazteei haren gaineko berbaldiak eman zizkieten. Aitor Alkorta psikologoa ibili zen lan horretan. Kalamuaren ezaugarriak, kontsumoaren gehiegikeria... Hainbat arlo landu zituzten. /2001-01-28

GARRAIOA

### Udalak Arrasateko tranbiaren proiektua aurkeztu zuen

Bergara iparraldean hasi eta Aretxabaletako Gipuzkoa plazaraino iritsiko da tranbiaren lehenengo zatia. Tartean, Arrasate zeharkatuko du, erdi-erditik. Eta proiektu horren aurkezpena egin zuen Udalak urtarrilaren erdialdean. Lan hori egiteko Udala Eusko Jaurlaritzarekin ibili zen elkarlanean, eta 30 eguneko epea errespetatuz, herritarrek 18 alegazio aurkeztu zituzten. Arrasateko tarteak hamar geltoki izango ditu, eta 36 hilabete beharko dituzte lan horiek egiteko. Jaurlaritzaren esanetan, Bergaratik Aretxabaletarako tartea egiteko 33 minutu beharko dira /05-01-21

KIROLA

### Aurten hasiko dira Mojategiko kirol instalazioak egiten

Aurtengo aurrekontuetan onartutako partiden artean, 1.850.000 euro onartu zituen Udalak Mojategiko kiroldegiko instalazioak egiteko. Lanen aurrekontua askoz ere handiagoa izango da eta Atxabalpeko zelaian etxeak eginez ordainduko dute lan horien zati bat. /2005-01-21

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna, z/b
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11 / Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Iker Barandiaran
Ubane Madera,
Xabier Urtzelai
MAKETAZIOA
Kepa Martelo
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Amaia Mundiñano
Itsaso Berezibar
Ziortza Martinez
Imanol Elortza
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Eusko Jaurlaritzako Kultura saila
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Aramaioko Udala

## ETABARRUAN...

**ARRASATE**
Urtarrila ..................3
Otsaila ..................4
Martxoa ..................5
Apirila ..................6
Maiatza ..................7
Ekaina ..................8
Uztaila ..................9
Iraila ..................10
Urria ..................15
Azaroa ..................16
Abendua ..................17

**ARAMAIO**
Urtarrila/Otsaila ...19
Martx/Apiril/Maiatz20
Ekain/Uztail/Irail ..21
Urri/Azar/Abend ...22



# OTSAILA



*"Kalamuaren mendekotasuna psikologikoa da"*

**AITOR ALKORTA** / PSIKOLOGOA
2005-02-11



*"Mondragoeko jendea beti egon da lanerako gertu, eta hori ez erraz aurkitzen"*

**J.M. ORMAETXEA** / KOOP. SORTZAILEA
2005-02-11

## HILEKO ESALDIA

**"Ez dago preso politikorik, baina lege bereziak egiten dituzte eurendako; hori kontraesana da"**

**ENRIKE LETONA**/ ION AGIRRE EKIMENA
2005-02-11

## HILEKO DATUA

**8**

**MILA EURO TSUNAMIAREN BIKTIMENDAKO**

Diru hori batu zuten Arizmendiko ikasleek. Zozketa solidarioan, Maialen Zubizarretak eta Paki Aranak irabazi zuten. /2005-02-15




### Udalatxen aldeko taldea aurkeztu zuten otsail hasieran

Honako talde, erakunde eta sindikatuek osatu zuten Udalatxen aldeko taldea: AHT Elkarlana, Ekologistak Martxan, Besaideko Espeleologia Taldea, gaztetxea, Segi, CCOO, LAB, ESK, Ahots Kooperatibista, Ezker Batua-Berdeak, Aralar, Zutik, Batasuna eta Herri Anitza. Mendia zulatzearen kontra azaldu ziren, prentsaurrekoan. /2005-02-01

**EZPELETA ETA CASADO EUSKADIKO SELEKZIOAN**
Arrasateko bi kirolari horiek Euskadiko Selekzioarekin esku hartu dute mendiko lasterketetan. /2005-02-04

**EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA**
Otsailaren 8an emakume bat hil zuten Iruñean, eta hori salatzeko kale agerraldia egin zuten Herriko Plazan. /2005-02-10

## AIPAGARRI



**IÑAKI SARATXAGA**
**Margolaria**

"Tituluak edukitzea baino garrantzitsuagoa da nork bere ideiak garatzea". Artista bilbotarrak erakusketa bitxia egin zuen Arregi galerian. /2005-02-25



**LORENTXO ALTUBE**
**Baserritarra**

Lorentxo Altubek eskuz egindako musika tresnak eta baserriko tresnak erakusgai jarri zituen San Andres auzoan dagoen Etxaluze baserrian. /2002-02-04



**EUGENIO ITURRIOTZ**
**Medikua**

"Antzinatasunik gabe eta negoziatu gabeko baldintzetan bidaltzen gaituzte Osakidetzara". Igualatorioko langileek protesta egin zuten otsailean. /2005-02-11

LANDALUZE
HARATEGIA-URDAITEGIA
ITURRIOTZ KALEA 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE

Ondo pasatu Gabonak!

EUSKAL OKELA
BAIMENDUTAKO HARATEGIA

HARATEGI ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

Urdaiazpikoa osorik hezurra kenduta, prentsatuta eta garbituta taberna, denda eta jatetxeetarako.

HORTZ KLINIKA
UARKAPE

Odontologia orokorra
Endodontzia
Inplantologia
Protesiak

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

# MARTXOA



*"Euskara gutxiago maitatu eta gehiago erabili behar da"*

**ENEKO BARBERENA** / IDAZLEA

2005-03-04



*"Inor azaltzen ez bada Mondrak hori merezi duelako izango da"*

**JOSE LUIS EZKURRA**/ PRESIDENTE OHIA

2005-03-11

## HILEKO ESALDIA

**"Eskubide berak ditugula sinetsitakoan bukatuko dira bortizkeria arazoak"**

**NEKANE SAN MIGUEL** / EPAILEA

2005-03-07

## HILEKO DATUA

# 423

**MILA EURO UDAL ARTXIBOA BERRESKURATZEKO**

Abuztu amaieran izandako uholdearen ondorioz, Udal Artxiboa kaltetu egin zen, dokumentu asko busti egin ziren-eta. /2005-03-11



## Inazio Lakuntzak gainbegiratua

Udalaren jardunari begiratua emateko asmoarekin jo genuen martxoan alkatearengana. Hainbat gai zeuden jorratzeko: erroldaren beherakada, etxebizitzen arazoa, lana, kultura... Erroldako bajei dagokienez, alkateak aipatu zuen kanpora bizi izatera doazen gehienak gazteak direla, 20-36 urte arteko jendea. Alde horretatik, Udalaren asmoa zerbitzu egokiak eskaintzea zela aipatu zuen, jendea Arrasaten gera dadin. Horrekin batera gaineratu zuen Arrasaten laster 1.000 etxebizitza inguru egingo dituztela, eta horietako ia %50 babes ofizialekoak izango direla. Zerbitzuei dagokienez, onartu zuen ibarreko gainontzeko herrien moduan gabeziak ditugula, eta Garaian egiten dabiltzan lana azpimarratu zuen, ibarrerako garrantzitsua delako. /2005-03-04

**GUZTIOK KORRIKAREN ALDE**

↑ Arrasateko batzordekoek eskerrak eman zizkieten Korrikarekin bat egin zuten herritar, elkarte eta enpresei. /2005-03-18

**DIPUTAZIOAK ERRETIRATUEKIN DUEN JARRERA**

↓ Hemengo erretiratuak dira Gipuzkoan garraio publikoan deskonturik ez duten bakarrak. /2005-03-15

## AIPAGARRI



**MARIA JOSE GIL**
**Atleta**

Urrezko dominak binan-binan eskuratzen ditu atleta beteranoak. Sevillan irabazi zituen bi, eta Oviedo beste bi. Gorputzaldi onean hasi zuen urtea. /2005-03-04



**CASADO / EZPELETA**
**Kirolariak**

Isa Casado eta Leire Ezpeleta Europako mendiko lasterketa gogorrenean izan ziren, Pierra Mentan. Izan ere, lau etapa izan zituen proba hark. /2005-03-18



**ZUHAITZ EZPELETA**
**Atleta**

Bedoñakoak Oñatiko duatloia irabazi zuen. Ez zen denboraldiko lorpen handiena izan, Euskadiko Selekzioarekin aurrean ibili da-eta Munduko Txapelketan. /2005-03-21

JUBAR®
ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17
110 posta-kutxa • ARRASATE • jubarateak@ euskalnet.net

DQ certificación
E.R. 02/518
ISO 9001/00
ACREDITADO POR ENAC



• Garajeko ateak
• Segurtasunezko pertsianak
• Automatismoak
• Konponketak
• Urrutiko aginte tresna homologatuak
• Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak










Oinezkoen ate automatikoak



# APIRILA



*"Euskal Herrian legala dena ez da zilegi, eta zilegi dena ez da legala"*

**ANTTON MENDIZABAL** / IRAKASLEA

2005-04-08



*"Posible da PSE-EEren eta gure botoak batuta EAJ-EAk baino gehiago izatea"*

**ITZIAR LAMARAIN** / PP-KO HAUTAGAIA

2005-04-15

## HILEKOESALDIA

**"Batzuetan igarri egitten dou oin arte gizonezkuena izen dan sektore baten gabitzela lanien"**

**ARANTZAZU UGARTE** / LANGILLIE

2005-04-29

## HILEKODATUA

**4.657**

**BOTO ESKURATU ZITUEN EAJ/EA KOALIZIOAK**

Hauteskundeetan koalizio horrek eskuratu zituen boto gehien, baina 2001ean baino 1.996 boto gutxiago izan zituen. /2005-04-22



## Azpiegitura lan garrantzitsuak

Diputazioko ordezkariak izan ziren Arrasaten, tartean Joxe Joan Gonzalez de Txabarri. Eta alkateak lagunduta, datozen urteotan Arrasaterako azken 100 urteotako azpiegitura lanik handienak iragarri zituzten. Besteak beste, Epeletik Eroskiko biribilgunerainoko errepide zatia handitzeko lanen, Olandixoko tunelaren eta autobidearen gainean egin zuten berba.

Olandixoko tunelari dagokionez, uztailerako proiektua idatzita izango zutela esan zuten, eta urtea amaitu aurretik lanak esleituta egongo zirela. Hala, 18 hilabeteko epean obrak amaituta egotea gurako lukete. Inazio Lakuntzak azpimarratu zuen Olandixoko tunelak baldintzatzen dituela Polmetasa, Garaia eta Fagor Ederlanen fabrika berriaren proiektuak. / 2005-04-15

**BIDE-SEGURTASUNAREN GAINEKO BERBALDIAK**

↑ Udaltzainek bide-segurtasunaren gaineko berbaldiak eman zizkieten herriko erretiratuei. /2005-04-08

**SAN ANDRESKO ALKATETZAREKIN HASERRE**

↓ San Andresko emakume talde bat haserre agertu zen auzoko alkatetzarekin, lokala kendu behar zietelako. /2005-04-08

ATXILOKETAK

## Gorka Aztiria eta Gaizka Olabarrieta atxilotu zituzten

Apirilaren 7an atxilotu zituen Espainiako Poliziak, goizaldean euren etxeetara sartuta. Berehala eraman zituzten Madrilera, eta han bost egun inkomunikatuta egon ziren. Eurekin batera Hernanin ere emakumezko bat atxilotu zuten, eta Auzitegi Nazionalak ETAren Donostia komandoari laguntza ematea egotzi zien. Bost egun inkomunikatuta egoteagatik Askatasuna gazteen osasunaz arduratuta azaldu zen, eta inkomunikazioak amaitu egin behar duela salatu zuten, torturatzeko erraztasunak ematen dituelako. Atxiloketa horien kontra egiteko kale agerraldiak izan ziren ibarrean eta Ertzaintzak hainbat gazte atxilotu zituen.

**AMAIA ARRIETA ASKE**

Astebete lehenago utzi zuten aske Amaia Arrieta arrasatearra, lau urte kartzelan igaro eta gero. Hala ere, oraindik epaiketa baten zain geratu zen, 1.801 sumarioan inputatuta zegoelako. Amaiak salatu zuen epaiketa politikoa egiten zebiltzala. /2005-04-15

**igo autobusera**

Albistegia
Mingaina dantzan
Eguraldia (Joxe Landa)
Meteorologia (Pello Zabala)
Agenda
Azoka plaza
Elkarrizketak
Literatura
Merkatu txikia
Kirolak
Ibili munduan
Opariak
Lorategia
Zorion agurrak

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00etatik aurrera**

**parte hartu irratian**
Tel.: 943 71 17 31 e-posta: irratia@goiena.com

**FM107.7 ARRASATE IRRATIA**

# MAIATZA



*"Bertsioekin egin ginen ezagun, baina orain gure uztako abestiekin gabiltza"*

**AITOR AGIRRE** / JUKEBOX

2005-05-09



*"Loditasuna gaixotasuna da, baina jendeak ez du hala ikusten"*

**LEIRE EZKURRA** / DIETISTA

2005-05-06

## HILEKOESALDIA

**"Erakundeen zain egon gabe, euskal hiztunok jo behar dugu produktu eta zerbitzuak antolatzen"**

**JOXE MARI MUXIKA** / TOPAGUNEA

2005-05-06

## HILEKODATUA

**140**

**LAGUNEK EGIN ZUTEN LAN KILOMETROAK TXIKIAN**

Arizmendi Ikastolak Kilometroak Txiki izeneko jai erraldoia egin zuen hainbat gunetan banatuta. /2005-05-06




### MCCren 2004ko salmentak, 2003an baino %8,3 gehiago

MCCko presidenteak, Jesus Cataniak, aditzera eman zuen 2004an emaitza onak izan zituztela.2004an 10.459 milioi euroko salmentekin itxi zuten urtea; 2003koekin alderatuta, %8,3 hazi ziren. Korporazioaren inbertsio globalari dagokionez, 730 milioi euro izan zen eta MCCren esanetan; horri esker 2.624 lanpostu berri sortu zituzten. /2005-05-13

**LAPURRETEK BEHERA EGIN ZUTEN**

Ertzaintzaren arabera, urtarriletik maiatzera bederatzi lapurreta salatu zituzten. 2004an, berriz, 23. /2005-05-20

**URIBETXEBARRIA ETA AGIRRE OSO GAIXORIK**

Josu Uribetxebarria eta Jon Agirre presoak oso gaixo zeuden. Senideek eskatu zuten etxera eramatea. /2005-05-27

## AIPAGARRI



**JUANITO ARTZAMENDI**
**Konpositorea**

Arrasateko Juanito Artzamendi musikagile eta konpositore ezagunari merezitako omenaldia egin zioten herriko hainbat elkarte eta lagunek. /2005-05-20



**RAFAEL ZEZIAGA**
**Artista**

Espainiako Gerran Argentinan erbesteratu zen arrasatear hura. Politikarekin eta Elizarekin kritikoak diren artelanak egiten ditu botilekin. /2005-05-13



**AMAIA ESPARTZA**
**Kooperantea**

Amaia Espartza arrasatearra, Iban semea eta Hugo senarrarekin batera, Ugandara joan zen urtebeterako, ugandarrei laguntza ematera. /2005-05-27

sofa leniz
Sofatan eta atsedenerako sistematan barietate handia
Astelehen goizean itxita
Astelehenetik larunbatera
9:30-13:00 • 16:30-20:00
Tel./Faxa: 943 79 27 16
Araba etorbidea 3

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak
SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA
7505 zenbakira
Deiaren prezioa: 0,90 + BEZa
Euskal soinu eta irudiak zure eskura!
ABESTIAK POLIFOIKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA
LOGOAK (sms1)
JOKOAK (4 sms)
SOINUAK (2 sms) Soinu izena I KODEA
OHARRAK
...ASKOZ GEHIAGO GURE WEBGUNEAN www.smsoinu.com

ARRASATE PRESS
Egubakoitza / 2005eko abenduaren 30a

# EKAINA



*"Sistemak biolentziaren monopolioa beregan hartzen duela salatu dut"*

**PATXI PEREZ** / INTSUMISOA

2005-06-10



*"Musika klasikoa oinarria da, baina jazzean beste gauza batzuk daude"*

**ZIGOR MARTINEZ**/ BIG BAND

2005-06-10

## HILEKOESALDIA

**"Gobernuek enpresariei dirua eman beharko liekete, ama umearekin egon dadin"**

**ALFREDO OTALORA** / GINEKOLOGOA

2005-06-10

## HILEKODATUA

**75**

**LAGUNEK ESKU HARTU ZUTEN PATIN GAUAN**

Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak antolatzen duen patin gauak gero eta arrakasta handiagoa lortzen du. /2005-06-20



### Mundumiraren lehenengo edizioa

Munduko zenbait kultura eta musika gurean hartu, eta gureak plazaratu. Hori izan zen Mundumira jai erraldoiaren helburua. Festa horren barruan hainbat ikuskizun egin zituzten ibarrean –batez ere Arrasaten– asteburu osoan.

Monterrongo jaialdietan, besteak beste, honako musikariek esku hartu zuten: Euskal Herriko Gari, Senegalgo Babacar & Diengoz, Eskoziako Phil Cunningham, Brasilgo Marcio Faraco eta Kubako Raul Pazek, hain zuzen ere. /2005-06-10

## AIPAGARRI



**MIKEL ARANBURU**
**Abadea**

Mikel Aranburu oñatiarrak 25 urte bete zituen Uribarri auzoan abade. Auzotarrek omenaldia egin zioten egindako lanarengatik. Bizitzako zati handiena Leintz ibarrean egin du. /2005-06-10



**ESTEBAN UMEREZ**
**Abokatua**

Euskal Herriko hainbat abokatuk Justizia Euskaraz izeneko elkartea sortu zuten justiziaren alorrean euskararen erabilera defendatzeko. Esteban Umerez arrasatearra da presidentea. /2005-06-17



**LUIS LASKURAIN**
**Margolaria**

Bergarako margolariak erakusketa egin zuen Arregi dendan. 60ko hamarkada ezkero dabil margotzen eta Margo Taldekoei ere eskolak ematen dizkie. Jende asko joan zen lanak ikustera. /2005-06-03




"hator hator mutil etxera..."

arrasateko
aralar

# UZTAILA



*"Jendea sentsibilizatu gura dugu Saharak bizi duen egoerarekiko"*

**AGURNE JULDAIN** / NUBI ELKARTEA

2005-07-08



*"Selekzioarekin Munduko eta Europako txapelketak jokatu behar izan ditut"*

**I. MALLABIABARRENA** / SASKIBALOIA

2005-07-15

## HILEKO ESALDIA

**"Ikasteko oso ondo dator lehen taldearekin jokatu ahal izatea. Maila bakoitzak bere gauzak ditu"**

**MIKEL GONZALEZ** / REALA

2005-07-25

## HILEKO DATUA

**150.000**

### URTEKO AZTARNAK AURKITU ZITUZTEN LEZETXIKIN

Aranzadik indusketak egin zituen Lezetxikin, eta, hain zuzen ere, 150.000 urteko aztarnak aurkitu zituzten. /2005-07-25



## Epelera zabaldu zuten autobidea

AP-1 autobidearen hirugarren zatia, Bergara hegoaldetik Epeleraino doana, zabaldu zuten. Autobidearen gainontzeko zatiak moduan lau errei ditu, eta bakoitzak 3,50 metro zabaleran; bazterbideak, berriz, eskuinekoak 2,50 metrokoak dira eta ezkerrekoak metro batekoak.

3,5 kilometro ditu errepide zati horrek, horietatik 1,5 kilometro lur azpitik. Izan ere, bi tunel dauzka: Ikastaundikoa (1,2 km) bata, Elorregin hasi eta Arrasateraino doana eta Aristikoa (0,3 km) bestea. Errepide zati horri dagokion ordainlekua Epelen jarri dute.

Ia 4 urte iraun dute lanek eta 87 milioi euroko kostua izan dute. Inaugurazioan, Araba eta Gipuzkoako diputazioetako, udaletako eta Jaurlaritzako ordezkariak izan ziren. / 2005-07-25

### TELEFONO ANTENEN GAINEKO SALAKETAK

Udala eta hainbat herritar hasi ziren telefono antenek osasunean eragin ditzaketen kalteak salatzen. /2005-07-22

### 40 BIDER GAINDITU KUTSADURA MUGA

Aditzera eman zuten Arrasatek 40 bider gainditzen duela legeak ezarritako kutsadura muga. /2005-07-22

## AIPAGARRI



**ESTHER LARRAÑAGA**
**Sailburua**

Lehendakariak EAko Esther Larrañaga arrasatearra izendatu zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburu. Eskarmentua dauka Larrañagak. /2005-07-01



**PEDRO SALABERRI**
**Abadea**

Pedro Salaberri abade arrasatearrari omenaldia egin zioten San Juan Bataiatzailearen elizan. 50 urte egin zituen abade eta Kontzezinon dihardu. /2005-07-08



**JOSE LUIS AZKARATE**
**Mondrako presidentea**

Jose Luis Azkaratek hartu zuen Jose Luis Ezkurraren lekukoa Mondra futbol taldearen zuzendaritzan. Bazkide gehiago egiteko apustua egin zuten. /2005-07-18

JOXAN




bitxitegia eta erloju denda

ESKAINTZA:
Bitxietan %30eko beherapena
Erlojuetan %20ko beherapena

Aprobetxa ezazu!




"Erloju on bat edonorren eskuetan egon daiteke"

Portaloia 8 • Tel.: 943 79 22 24
ARRASATE

# IRAILA



*"Nik uste dut, tokian tokiko hizkuntza erabili behar dela"*

**CHIEKO HATA/** ITZULTZAILEA

2005-09-08



*"Donostiara joan eta etortzeko ordaindu beharrekoa dirutza da"*

**AITOR ZABALO** / INGENIARIA

2005-09-16

## HILEKOESALDIA

**"Dei egiten dugu biluzteko, estetikak eta kanpokoak baino gehiago balio duelako pertsonek barruan dugunak"**

**ANGER** / MUSIKA TALDEA

2005-09-30

## HILEKODATUA

# 4.250

**TXERTO BANATUKO DITUZTE GRIPEAREN AURKA**

Irailaren 16an hasi eta azaroaren 4ra bitartean eman zuten Arrasaten gripearen aurkako txertoa. /2005-09-16

OSASUNA

### Laster ospitale berria egingo dutela iragarri zuen Osakidetzak

Ospitale guztiz berria izango dela iragarri zuen, bi helburu betetzeko: gaur egun dituen gabeziei aurre egitea eta Lagun Aroko bazkideak sartzen direnerako zerbitzu egokia ematea. Egoitza berria oraingoarekin lotuta izango da; kirurgia eta ospitaleratzea hantxe izango dira. /2005-09-08

KIROLA

### Besaideko Oroimen Egun berezia: monumentuak 50 urte

1955ean egin zuten Besaideko monumentua eta urte berean hasi ziren Oroimen Eguna ospatzen. Bi urte lehenago Mont Blanc-en hil ziren bost euskaldunen zorigaiztoak bultzatuta hasi ziren egun hori ospatzen. Eta lehenengo urteurrenean Besaideko iturria inauguratu zuten. /2005-09-16



### Reala eta Eibar gurean, euskararen alde

Kilometroak jaiaren alde elkartu ziren Reala eta Eibar Atxabalpe futbol-zelaian. Lagunarteko partidua jokatu zuten, polita, gainera, gol ikusgarri eta guzti. 2-0 nagusitu ziren txuriurdinak. 2.000 ikusle izan ziren. /2005-09-08

**ARRASATERAKO MUGIKORTASUN PLANA**

↑ Aurkeztu eta onartu egin zuten oinezkoendako bizi-kalitatea hobetzeko eta ingurumena babesteko egitasmoa. /2005-09-23

**KULTURA ETXEKO LANAK BERRIRO GELDI**

↓ Obrakoekin desadostasunak, prebarikazio salaketak... Denetarik izan zen. Bitartean, lanak geldi zeuden. /2005-09-23

## AIPAGARRI



**JOSE MARI URANGA**
**Historialaria**

Irailaren 22an hil zen Uranga, Arrasateko historialari ezagunenetakoa. Zenbait liburu, artikulu eta Arrasateko historiaren gaineko lan sakonak egin zituen. /2005-09-29



**AINHOA URIARTE**
**Guatemalan irakasle**

Guatemala iparraldean dagoen komunitate indigena baten liburutegia eraikitzeko dirua batzen ibili zen. Irail erdian joan zen hara, maiatzera arte. /2005-09-02



**JOSE LUIS ARMENDIA**
**Yoga irakaslea**

Orain dela 27 urte yoga egiten hasi eta orain dela 25 urte yoga elkartea sortu zuen. Hasieran dozena bat lagun izan ziren; orain, berriz, 75 dira. /2005-09-26


SUGAR

● **Neska**eta**mutilendako**gazte**moda**

● **36**eta**50**arteko**neurriak**

Ferrerias kalea 28 / 943 77 12 54 / ARRASATE

RESUSTA
Karrikiri




Erdiko kalea 38 • Tel.: 943 79 01 07

egizabal
oinetakoak

Zorionak eta Urte Berri On









ARRASATE, Olarte 14 Tel: 943796601
BERGARA, Bidekurutzeta 13 Tel: 943761228

Bidaburu
AROZTEGIA S.L.

Era guztietako
berrikuntza lanak
Leihoak
Neurri guztietako atariak
Zoruak, eta abar.





*Urte berri on!*

Zubillaga 20 OÑATI
151 posta-kutxa ARRASATE
Tel.: 943 78 35 00 - Faxa: 943 71 82 54 - Poltsikokoa: 627 48 58 13
E-maila: bidaburu.h@eukalnet.net

CONSTRUCCIONES ALKESA,S.L.

URTE
BERRI ON!

TEILATUAK (ESTALKIAK),
FATXADAK ETA EGITURAK
ZAHARBERRITZEAK ETA
BIRGAITZEAK
ERAIKUNTZAK
ERA GUZTIETAKO
ERAIKUNTZA LANAK
PROMOZIOAK
IGOGAILUAK



Santa Marina 40-42 behea
20500 ARRASATE
Tel./Faxa: 943 77 13 27
Mugikorra: 639 82 83 32
alkesa@infonegocio.com


CHAMPAGNE
JEEPER
Topa


ein daigun!
TERRI ON DENOI!
Bengoa
Basati
Biona
Jai Zale
Branka
Boliñete
Lora
Gure Leku
Amets
Monte
Irati
Itzala
Rumba
Iluntz


Ondo pasau Gabonetan!
BERANGO
LOGOS
ALTZARI INTEGRALAK
DEKORAZIOA, SUKALDEAK
Tel.: 943 79 01 92
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate
4 URTE
interes barik
Muebles
Kabía
Altzariak
Gipuzkoa etorbidea 23
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 27 70

# URRIA



*"Uste dut MCC izan behar dela garrantzi handiagokoa Europako lankidetzan"*

**ADRIAN ZELAIA** / MCC-KO IDAZKARIA

2005-10-21



*"Kalean eskelek eta udal bandoek baino ez dute lekurik"*

**OIHAN ZUBIZARRETA** / GAZTEA

2005-10-14

## HILEKO ESALDIA

**"ETBkoek galderak euskaraz egiten dizkietenean bakarrik erantzuten dute euskaraz kargu publikoek"**

**PATXI OREGI** / LANGILEA

2005-10-07

## HILEKO DATUA

# 26

**UDALTZAIN DABILTZA LANEAN ARRASATEN**

Hala jakinarazi zigun Udaltzaingoak. Udaltzaingoa profesionalizatzeko bidea lantzen dabiltzala ere esan zuten. /2005-10-21




### Uribarrin eraikiko dituzten 189 etxebizitzen eta inguruaren irudia

Auzo hark etorkizun hurbilean izango duen irudia erakutsi zuten. Zazpi bloke etxe eraiki behar dituzte Uribarri auzoan, guztira, 189 etxebizitza; horietatik 145 libreak izango dira eta 44 babes ofizialekoak. Batez beste 115 metro koadroko etxebizitzak izango dira. Etxeekin batera, besteak beste, 543 aparkaleku sortzea aurreikusi dute, hiru bat toki etxebizitza bakoitzeko. /2005-10-21

**ASFAMOGI ELKARTEAK BULEGOA ZABALDU ZUEN**

Gipuzkoako Familia Guraso Bakarren Elkarteak zabaldu zuen bulegoa Arrasate pasealekuan. /2005-10-28

**PESAK ZAPATU GOIZEKO ZERBITZUA KENDU**

Zapatuan, 09:30ean izaten zen autobusa kendu zutela-eta, zerbitzua berriro jartzeko eskatu zuen Udalak. /2005-10-07

## AIPAGARRI



**JOSE RIVIERE**
**Erretiratua**

Herriko lau elkarteak batuko dituen abesbatza sortzeko asmoa bideratzen hasi zen. David Artzamendik zuzendari lanak egiteko konpromisoa hartu zuen. /2005-10-07



**SABINA ALTUNA**
**Erretiratua**

Gipuzkoako erretiratuen gastronomia txapelketan ibarreko ordezkari izan zen, Felix Aiastuirekin batera. Izan ere ibarreko txapeldun izan ziren biak. /2005-10-21



**GOSE**
**Musika taldea**

Trikitia eta musika elektronikoa bateratu eta diskoa aurkeztu zuen Gose taldeak. Ines Osinagak (argazkian), Iñaki Bengoak eta Tadeosek osatzen dute. /2005-10-14

Uarkape
jatetxea

Plater konbinatuak, bokatak, eguneko menuak, karta.

2006a ere oparoa izan dadila!

Otalora lizentziatua 10
Tel.: 943 77 20 04
ARRASATE

ARRASATE PRESS
Egubakoitza / 2005eko abenduaren 30a

# AZAROA



*"Zuberoako ikastolek beharra dute; diru aldetik ez dabiltza oso ondo"*

**RENEE HARBUSTAN** / ZUBEROTARRA

2005-11-18



*"EH Sukarrak laster zazpigarren diskoa grabatuko du"*

**MIKEL GOROSABEL** / MUSIKARIA

2005-11-18

## HILEKO ESALDIA

**"Ez dugu ezer egiten ikasketak euskaraz egitearekin gero horrek jarraipenik ez badauka lanean"**

**JON DORRONSORO** / FAGOR

2005-11-25

## HILEKO DATUA

# 20

**URTE BETE DITU ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSAK**

20. urteurrena ospatzeko zenbait ekitaldi antolatu zituen Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsak. /2005-11-18




### Emakumeek jasaten duten biolentziari aurre egiteko pausoak

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko jardunean, egoeraren diagnosia eta indarkeria horri aurre egiteko ekintza plana aurkeztu zituzten. Horrez gainera, jakinarazi zuten ekintza protokoloa ere egiten dabiltzala. Hain zuzen ere, hori egiten dabiltza Ertzaintzako Bergarako komisariarekin, epaitegiarekin, ospitalearekin eta udaltzaingoarekin, besteak beste. /2005-11-18

**BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA EGIN ZUTEN**

↑ Hemengo baserriko produktuak bultzatu eta baserriak promozionatzeko helburuarekin egin zuten azoka. /2005-11-04

**ARRASATEARREK KANPOAN GASTATZEN DUTE ASKO**

↓ Ibai-Artek emandako datuen arabera, 9.160.700 euroko gastua egiten dute elikagaietan, drogerian... /2005-11-25

## AIPAGARRI



**INES ALDAI**
**Zinegotzia**

Euskararekin izan duen esperientzia dela-eta, jakinarazi zigun euskara gutxi erabiltzetik, ahalegina egin eta orain euskaraz bizitzen saiatzen dela. /2005-11-11



**ANGEL LASAGABASTER**
**Kuku dendakoa**

52 urtean dendari izan ostean, erretiratu egin zen, 65 urterekin. Horren ondorioz, ugazabaren izen bera zuen dendak, *Kuku*-k, ateak itxi zituen. /2005-11-25



**JON BEREZIBAR**
**Kazetaria**

Lekeitioko Euskal Zine eta Bideo Bileran saritu zuten, *Kabana* dokumental laburrarengatik. Iraia Agirre eta Leire Zuazagarekin egin zuen lana. /2005-11-21

URONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

# ABENDUA



*"Hobetzen ahalegintzen gara, ikuskizun duina egin eta jendea gustura izateko"*

**TERE GONZALEZ** / I. MURGIA ELKARTEA

2005-12-07



*"Nire etxean bi hizkuntza entzuten dira: frantsesa eta euskara"*

**JABIER RETEGI** / UNIBERTSITATEA

2005-12-16

## HILEKO ESALDIA

**"Jonek 64 urte ditu eta 24 urte eta erdi daramatza espetxean; 3/4ak orain dela hamar urte bete zituen"**

**R. URRIZALKI** / ION AGIRRE EKIMENA

2005-12-16

## HILEKO DATUA

# 900

**ETXEBIZITZA EGITEKO LANAK HASITA**

900 etxebizitza horietatik 365 babes ofizialekoak izango dira. Halaxe jakinarazi zigun Inazio Lakuntza alkateak. /2005-12-16



## Kiroldegi berriaren itxura ikusgai

Abendu hasieraz geroztik ikusgai dago Musakolan eraikitzen dabiltzan kiroldegi berriaren maketa. Oraingo kiroldegiaren sarreran ipini dute. Getxoko Panorámicas Media enpresak egin du, 11.565,20 euroren truke. Udaletik jakinarazi zigutenez, kiroldegiko harreran utziko dute, lanak bukatu arte.

Lanei dagokienez, berriz, abenduan lehenengo fasean zebiltzan: eraikin berriarendako lekua egiten. Horretarako 800.000 metro kubiko lur ateratzen dabiltza. Halaber, Udalak jakinarazi zigun lanak bide onetik zioazela, atzerapen barik. Horrez gainera, jakinarazi zigun 21 hilabeteko epea dutela guztia bukatzeko. Instalaciones Deportivas Arrasate aldi baterako enpresa-elkartea dabil kiroldegia eraikitzen, 7.666.639,25 euroko aurrekontuarekin. /2005-12-07

**AZERIKO GUNEAN ETXEBIZITZAK EGITEKO BAIMENA**

↑ Diputazioaren baldintzak betez gero, esan zuten baimena emango zutela Polmetasan etxeak eraikitzeko. /2005-12-02

**BESTE BI DENDA TXIKI ITXI ZITUZTEN**

↓ Hire liburu-denda eta Kuku janari-denda itxi egin zituzten; oraingoz, ezerk ez du haien lekua bete. /2005-12-02

## AIPAGARRI



**BIXENTE URTZELAI**
**AMAT lantegia**

AMAT lantegiko fundatzaile Bixente Urtzelai hil egin zen. 60ko eta 70eko hamarkadan berebiziko garrantzia izan zuen lantegia da AMAT. /2005-12-02



**UNAI PAROT**
**Presoa**

Unai Parot preso arrasatearrari 60 urteko kondena ezarri nahi diotela salatu zuten. Hain zuzen ere, 2041era arteko zigorra ezarri nahi diotela. /2005-12-02



**JULEN RIBAS**
**Marrazkilaria**

Julen Ribasek eta Unai Busturiak Numenak Aita izeneko komikia argitaratu zuten. Trilogia baten lehenengo liburua zela esan zuten. /2005-12-02

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten
www.goiena.net-eko blog komertzialak

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:**
**www.goiena.net/blogak · azabarte@goiena.com · 943 76 92 70**

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

www.goiena.net/blogak
/4quattro4 /arregi /atai /azkarate /joseba
/BZ-sistemas /gallastegi /garaia /guztizeder /korozabaleta
/multiopticas /ohiak /okipark /vitoria /pando
/udalatx /udalaitz /dragon-oriental /irudisport
/argi-plastik

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com






UDALAITZ

UDALAITZ S.L.
Gipuzkoa etorbidea 36 • 20500 • ARRASATE
Tel: 943 71 18 70 Faxa: 943 71 18 71

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko abenduaren 30a / 178. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otalora Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS1084/02


# URTARRILA



*"Erabaki genuen hemen egitea guk gura genuen pentsua; pentsu osasuntsuak nahi genituen"*

**JULIAN UNTZUETA**
ARBEL KOOPERATIBAKO PRESIDENTE-ORDEA
2005-01-21

KULTURA

## Euskara biziberritzeko plana onartu zuen Udalak 05-06rako

Euskararen erabilpena bultzatzeko aurreikusitako plan estrategikoa abiarazi zuen Udalak: Aramaioko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Honakoa da plan horren helburu orokorra: aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabaki eta bultzatu, euskaraz bizi nahi duten herritarrek hala egin ahal dezaten.

Udalak arlo ugari hartu zituen kontuan plan hori egiteko: irakaskuntza, familia eta transmisioa, teknologia berriak... Azken batean, herriaren eguneroko bizitzan eragina duten arloak dira.

Hala, horiek guztiak aztertu eta arlo bakoitzean dauden hutsuneak identifikatu eta gero, haiei aurre egiteko proposamenak aurkeztuko dituzte. /2005-01-14

LEHIAKETAK

## Arabako taldekako bertso txapelketako finala Iturrietan

Eta gainera, herriko bertsolariekin osatutako taldeak irabazi zuen lehiaketa: Gorbeialdeko taldea. Talde hartan hiru aramaioarrek parte hartu zuten: Andere Arriolabengoak, Lierni Altunak eta Iker Agirrek. Lehiaketa irabazten zuten bigarren urtea izan zen. 50 lagun elkartu ziren Iturrietan finala entzutera. /2005-01-31



Bertsolari taldea lehiaketan.

# OTSAILA



*"Bidaia handiak egin daitezke prezio merkean; horrekin ezin da lehiatu"*

**BALERIANO IBABE**
UNTZUETA LANDA-TURISMOKOA
2005-02-04



*"Ez dago preso politikorik, baina lege bereziak egiten dituzte eurendako"*

**ENRIKE LETONA**
ION AGIRRE HERRI EKIMENEKO KIDEA
2002-02-11

KIROLA

## Zazpigarren urtez, Maider Unda Espainiako txapeldun

Otsailaren 18an jokatu zuen Maider Undak Espainiako Borroka Libreko Txapelketa. Gijonen izan zen. Eta hura izan zen garajle.

72 kilokoen senior mailan jokatu zuen, beste lau borrokalarirekin batera. Madrildar bat eta kanariar bat izan zituen aurkari gogorrenak. Hala ere, irabaztea lortu zuen: "Lehenengo borroka jokatu eta gero, askoz ere lasaiago atera nintzen eta lehenengo asaltoan irabazi nion kanariarrari".

Zapatuan bertan eman zioten Undari estatuko txapeldun izendatu zuten domina eta diploma. Federazioko presidente Angel Lopez Rojok eman zizkion sariak. Eta Oletako borrokalariak kontatu zigunez, oso pozik poltsikoratu zuen guztia: garaipena eta sariak. /2005-02-25

UDALETXEA

## 'Limitaua'-ren jabetzak eztabaida piztu zuen berriro

Aramaioko Udalak Oleta aldean konponketa batzuk egin zituelaeta, Otxandioko Udala eta Aramaiokoa *Limitaua*ren jabetzaren gainean hasi ziren berriro eztabaidan. Batak besteari esan zion lursail haiek bere udalerriarenak direla. Ez zuten bestelakorik egin, eta arazoak bere horretan segitzen du. /2005-02-04

ELURRA

## Elur dezente egin zuen otsailean, eta Aramaion igarri zuten

Ibar osoan bezala, Aramaion ere elurrak auzoak eta mendiak bapo zuritu zituen. Aramaioarrak ibili ziren traktorearekin garbiketa lanak egiten, baina halakoetan askotan gertatzen den moduan, izan zen arazo bat baino gehiago. Esaterako, Kurtzetan. Haize bortitza ere ibili zen otsailean. /2005-02-04

EUSKARA

## Jaioberrien familiei opariak banatzen hasi zen Udala

Debagoieneko udalerriekin batera, *Zorionak* izeneko kanpainan parte hartzen hasi zen Udala. Helburua zen jaioberriak euskaraz hezteko familiaren sentsibilizazioa piztea. Hala, gomendioen eskuorri bat, umeen berbekin hiztegi bat eta CD bat abestiekin opari egiten hasi ziren, besteak beste. /2005-02-25

UDALETXEA

## Onartu zuten aurreko urtean baino %36,4 gehiago inbertitzea

1.837.707,80 euro. Horixe da Udalak 2005erako erabaki zuen aurrekontua. Hortik zati handi bat inbertsiotarako bideratzeko asmoarekin, gainera: 652.103,44 euro. Eta hortik zati bat Haur Hezkuntzaren eraikinerako gordetzea erabaki zuten. Horrekin batera, Arexolako lanak egitea ere aurreikusi zuten. /2005-02-25




ZURE OPTIKA

ITZIAR UGARTE

*Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak*

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE. 943 08 26 87

Eskola Politeknikoaren ondoan

# MAR.-APIRILA



*"Adin nagusikoek oso funtzio garrantzitsua daukate gure gizartean"*
**LIERNI ALTUNA**
GAZTEA
2005-03-11



*"Herri honetan adostasun minimo batzuetara iristeko beharrean gaude"*
**ARANTZA IBABE**
LANGILEA
2005-03-18

POLITIKA

## Jon Agirre presoa ospitaleratzea lortu zuten

Makina bat ahalegin, eskaera eta bestelakoak egin eta gero, Jon Agirreren aldekoek lortu egin zuten hura Donostiako ospitalera eraman zezaten. Zortzi urtean horren zain izan zen Agirre, osasun arazo larriekin. Eskumako mokor hezurrean protesia ipintzeko ebakuntza egin zioten, hain zuzen ere.

Dituen osasun arazoak konpontzeko pauso garrantzitsua izan zen hura aramaioarrarendako, "ilusionatuta eta ezin sinistuta" zegoela esan zuen. Horrez gainera, berarendako pozgarria izan zen, baita ere, Euskal Herrira ekarri zutelako, 24 urtean hemendik kanpoko kartzeletan erabili eta gero.

Edozelan ere, besteak beste, presoen alde lan egiten duen Etxerat elkarteak gogora ekarri zuen presoa ospitalera eramatea lortu arren, Jon Agirrek preso segitzen duela eta kalean egon beharko lukeela. /2005-04-11



Jon Agirre Donostia ospitalean, ebakuntza egiteko zain.

UDALA

## Presoei laguntza ematearren, epaitu egin zuten Udala

Estatuko abokatuak Udala salatu zuen, presoen senideei presoa bisitatzera joan ahal izateko 1.000 euroko laguntza ematearren. Bada, Arabako administrazioarekiko auzietako bi zenbakiko epaitegiak Udalari eman zion arrazoia: laguntzak emateko eskumena Udalarena dela dio. /2005-04-15

KULTURA

## Manex Agirre hirugarren, bertso txapelketan

Arabako Bertsolari Txapelketa jokatu eta hirugarren postua eskuratu zuen Manex Agirrek. Honakoa izan zen sailkapena: Asier Otamendi (565,5 puntu), Oihane Perea (562,5 puntu) eta Manex Agirre (362,5 puntu). Gasteizko Jesus Guridi aretoan jokatu zuten finala. /2002-03-27

# MAIATZA



*"30 urtetik beherako gazteek denbora laburra dute eta geroago eta okerrago zaintzen dute euren burua"*
**JAVIER ESPAÑA**
MEDIKUA
2005-05-27

GIZARTEA

## Meteorologiaren gaineko datuak batzen Etxaguenen

Uribarren baserrian, meteorologiarekin lotutako datuak batzen dituzte orain dela 29 urte. Euria, hezetasun maila eta hotzberoa neurtzen dituzte Etxaguen auzoko baserri hartan. Maria Jesus Aspe arduratzen da datu horiek batzeaz. Batutako datuak Donostiara bidaltzen ditu eta handik Madrilera bidaltzen dituzte. Hala, Madrildik, Estatuko zentro meteorologiko inportanteenetara banatzen dituzte datuak, konparazioak eta bestelako lanak egiteko. Horrekin batera, Arabako Diputaziora ere bidaltzen dituzte.

Eguraldiaren gaineko datu bitxi batzuk eman zizkigun Maria Jesus Aspek; esaterako, orain lau urteko zaparrada batean, oso denbora laburrean 42 bat litro bota zituela esan zigun. Tenperaturetan, berriz, 70eko hamarkadako Errege Egun batean 11 zero azpitik egin zuela. /2005-05-06



Maria Jesus Aspe Uribarren baserrian, aparatuetako datuak batzen.

UNZUETA JATETXEA
Nekazalturismoa
Azkoaga (Zabola)
Tel.: 945 44 50 95
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



BEHI-ALDE
ERKOP
BEHI-ALDE, KOOP. E.
Olaeta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
44 posta kutxa
20500 Arrasate
MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA
Tel.: 945 45 01 00
945 45 03 15
Faxa: 945 45 01 00
945 45 03 15
ONDO PASATU GABON JAIAK!

# EKAINA



*"Aramaioko biztanleek erabaki beharko dugu zer nahi dugun: Albina orain arte modukoa izatea edo aldatzea"*

**MERTXE MONDRAGON**
ARAMAIOKO ALKATEA
2005-06-10

HIRIGINTZA

## Aramaioren beharrak helarazi zizkieten Batzar Nagusiei

Udalerriendako finantzaketa handiagoa eskatu zien Mertxe Mondragon alkateak Arabako Batzar Nagusiei. Horrez gainera, obrendako dirulaguntzak emateko orduan oinarrizko beharrei lehentasuna eman diezaieten ere eskatu zuen. Era berean, Aramaiok dituen arazoak ere azaldu zizkien; esaterako, Aramaioren egiturak (oso sakabanatuta dauden auzoak) ahalegin berezia eskatzen diola Udalari eta askotan ezin izaten dietela behar guztiei aurre egin. Adibidez, Arexolako lanek 480.827 euroko kostua dute eta Salgo-Errotabarrikoek 300.500 eurokoa. Horren harira, alkateak nabarmendu zuen Aramaion oinarrizko azpiegiturak egitea bestelako proiektuak finantzatzeko aukerak agortzen dituela. /2005-06-24

ETXEBIZITZAK

## Elkarri atxikitako 12 etxe egingo dituztela iragarri zuten

Etxeok Iturrosten egingo dituztela iragarri zuten. Promociones Aramaixo enpresak eraikiko dituela. Hasierako asmoa zen hiru bloke etxe eraikitzea. Etxeez gainera, zubi bat ere eraikiko dute, etxe haietara iristeko. Eta horrez gainera, etxeen inguruan urbanizazio eta errepide berriak eraikiko dituzte. /2005-06-17



Honako irudia izango dute etxeek.

# UZT.-IRAILA



*"Herri bakoitzean gaztetxe bat egon beharko luke"*

**ZONA KATASTROFIKA**
MUSIKA TALDEA
2005-07-01



*"Proposamena da mendira joatea, Euskal Herrian aukera asko daude"*

**JON UGARTE**
HERRIAK ETA MENDIAK AGENTZIAKOA
2005-07-22

INGURUMENA

## Su-gorrinaren eraginez, zenbait fruitu-arbola gaixo

Azkoaga auzoan atzeman zituzten gaixorik zeuden fruitu-arbolak. Ekainean konturatu ziren egoerarekin, eta zuhaitz horien laginak hartu zituzten berehala, analizatzeko. Hala, emaitzak esku artean, lau zuhaitzi detektatu zieten gaixotasuna.

Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiko teknikariak Aramaion izan ziren, hartu beharreko neurrien berri ematen; izan ere, erraz heda daitekeen gaixotasuna da su-gorrina. Neurri horien artean, Azkoagatik kilometro bateko bueltan dauden zuhaitz guztien laginak analizatu zituzten Diputaziokoek.

Zorionez, azaroan Udalari jakinarazi zioten hasieran atzemandako zuhaitzek bakarrik zutela su-gorrina, gainerakoek ez zutela arazorik. /2005-09-02

OBRAK

## Santa Kurtz Abadearen plazan eraldaketak

Herrirako aurreikusitako urbanizazio egitasmoen ondorioz, besteak beste, Santa Kurtz Abadearen plazaren eskuinaldean dagoen etxea eraitsi egingo dutela iragarri zuten. Ordenazioz kanpo dagoelako bota behar dute etxe hori. Bota ostean, handik pasabidea egingo dute, Iturrosteko etxebizitzetara. /2005-07-22

EUSKARA

## Euskara aztertu eta tesi moduan aurkeztu dute

Aramaioko euskararen azterketa dialektologikoa egin eta aurkeztu zuen Txipi Ormaetxea irakasle eta filologoak.

1996an hasi zen Aramaioko euskararen azterketa dialektologikoa egiten. Eta egindakoaren laburpena liburu eran aurkeztu zuen 2002an. Lan hori osotu egin zuen geroago. /2005-07-01

UDAKO IKASTAROAK

## XVIII-XIX. mendeko historia, artea eta hizkuntza aztergai

Euskal Herriko hainbat lekutatik etorritakoen bisita izan zuen Aramaiok uztailean, laugarren urtez, udako ikastaroak egin zituzten-eta. 14 adituk jardun zuten 1789-1848 bitarteko Euskal Herriaren historia, hizkuntza eta artea aztertu zituzten, tartean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. /2005-07-08

OBRAK

## Konponketa lanak egiten hasi ziren kiroldegian

Konponketa txikiak egiten ibili ostean, kiroldegiak zituen beharrei erantzun eta lan handiagoak egiten hasi ziren uztailean. Bukatu, berriz, irailean bukatu zituzten lanok. Hala, apurtuta zeuden leihoak kendu eta berriak ipini zituzten; baita segurtasuneko ateak ere. Arrasateko Argi-Plastik enpresak egin zituen. /2005-07-08

ITURRIOSTE
GARAJEA
Nekazaritza makinen eta autoen salmenta eta konponketa.
Olio, gurpil eta balazten konponketa
Urte berri on!
Santi Kurtz plaza 14.
Tel.: 945 44 51 28. ARAMAIO

ARBEL S.A.T 16
Garantiazko pentsu naturalak



Errotabarri 1,
Tel: 945 44 51 19
Aramaio

dukiena
dukiena
dukiena
dukiena
dukiena
JATETXEA
Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86
ARAMAIO
dukiena
dukiena
dukiena
dukiena

# URRIA-AZAROA



*"Eskerrak Oñatiko gaztetxea, jazz lehiaketa edo nekazarien kexuei"*
**MANEX AGIRRE**
IKASLEA
2005-10-14



*"Aramaioko kofradiak zaindu egiten du abade euskaldunak izatea"*
**EMILIO PEREZ**
PARROKOA
2005-10-21

ETXEBIZITZAK

## Babes ofizialeko 44 etxebizitzak zozketatu zituzten

Kultura etxean jende dezente batu zen azaroaren 10ean, babes ofizialeko etxebizitzen zozketan. 98 lagunek parte hartu zuen lehiaketan, horietatik 52 aramaioarrak. Gainerakoak Aretxabaletakoak eta Eskoriatzakoak ziren.

Lau ataletan banatu zuten zozketa: elbarriendako etxeak, guraso bakarreko familiendako, 35 urtetik beherakoendako eta kupo orokorrekoendako. Etxe txikienek 60 metro koadro izango dituzte, eta handienek 90. Etxe guztiek izango dute ganbara eta trastelekua.

Bestalde, gutxienez, 80.975 euro eta gehienez 106.800 euro ordaindu beharko dituzte zozketan etxeren bat eskuratu zutenek.

Pedro Inazio Barrutian egingo dituzte etxeok. Proiektua oraindik behin betiko onartu barik izan arren, alkateak ez du uste aldaketa handirik izango duenik. /2005-11-18

OBRAK

## Diputazioak onartu egin zituen Zabola eta Untzillako obrak

Hain zuzen ere, Diputazioak onartu zuen Zabola eta Untzilla auzoen arteko errepidea konpontzeko dirulaguntza ematea. Aurrekontu osoaren %60 emango dio, 52.350,26 euro. Udalaren asmoa zen lanak 2005ean hastea, baina atzerapenen ondorioz, 2006an hasiko dituzte. /2005-10-21

ERRETIRATUAK

## Merezitako omenaldia egin zieten herriko erretiratuei

Erretiratuen Egunaren harira egiten duten azokan herriko zein kanpoko 30 saltoki izan ziren Aramaion, denetariko produktuekin, guztiak ere etxean edo eskuz egindakoak. Horrez gainera, erretiratuek meza eta bazkaria izan zuten eta Ana Mari Jauregi eta Fidel Beitia omendu zituzten, erretiratu nagusienak izatearren. /2005-10-31

HEZKUNTZA

## Heziketa ekimen berezia abiarazi zuten Azkoaga auzoan

Guraso talde batek 3 eta 6 urte bitarteko umeei zuzendutako heziketa ekimena bultzatu zuen, Azkoagan. Ezaugarri jakin batzuk dituen hezkuntza mota nahi dutelako abiarazi zuten egitasmoa. Halaber, kontatu ziguten 11 ume elkartzen direla aurten, gehienak Aramaiokoak eta apurtxo batzuk ingurukoak. /2005-11-18

GIZARTEA

## Granadak aurkitu zituzten Albina urtegian

Bi asteren bueltan bi granada aurkitu zituzten Albinan. Urtegiaren garbiketa lanen ondorioz, urak dezente jaitsi ziren eta besteak beste, bide zaharra bistaratu zen. Bide zaharrarekin batera, besteak beste, Espainiako Gerrak utzitako bi granada aurkitu zituzten. /2005-11-17

# ABENDUA



*"Erakutsi deigun nortzuk garen eta geure herrixen geure hizkuntzan bizi gure dogule"*
**KEPA LIZARRALDE**
HERRITARRA ETA EUSKALTZALEA
2005-12-23

OSASUNA

## Hegazti-gripea dela-eta analisi beharra iragarri zuten

Hegazti-gripeari aurrea hartzeko helburuarekin, Arabako Foru Aldundia Aramaioko hegaztien laginak hartzen hasiko zirela iragarri zuten. Diputazioaren asmoa zen erregistratuta dauden oilategi profesionaletan egitea lehenengo analisiak (Aramaion ez dago halakorik). Eta gero, autokontsumorako diren oilategi txikietako hegaztiei egitea. Oilategietako hegaztiez gainera, itxian hazitako hegazti basatiak ere kontrolatzeko asmoa zuen Diputazioak. Analisiak abenduan hasi zituzten eta asmoa zen otsailean bukatzea.

Horrez gainera, Diputazioak zenbait segurtasun neurri hartzea ere gomendatu zien aramaioarrei. Era berean, debekatu egin zien baimen barik hegaztiei txertoa ipintzea. /2005-12-02

POLITIKA

## Udalbideri laguntzearren errekurtsoa Udalari

Laugarren aldiz errekurtsoa ipini zuen Estatuko abokatuak Aramaioko Udalak hartutako erabaki baten kontra. Oraingo honetan, Udalbideri 2.400 euroko laguntza ematearren ipini diote errekurtsoa. Horren ondorioz, Udalak epaiketa edo bista izango du. Urtarrilaren 31rako egin dute hitzordua. /2005-12-02



**Beste hiru bider epaitu dute Udala.**











Aramaioko
Udalbatzak Gabon jai
zoriontsuak opa dizkizue
aramaiar guztioi

ARAMAIOKO UDALA
ARABA

Bixente Goikoetxea enparantza 1 - Tel.: 945 44 50 16. e-posta: udala@aramaio.org

# Etxeko konponketak

## Elektrizitatea

ARANZABAL, S. KOOP.
Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

## Margoak

Apain
MARGO ETA APAINKETA
Maitena 3-1
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

JOVI
10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87

## Iturgintza

EGIA iturgintza
Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota
Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

IMANOL
Iturgintza • Berogailuak • Gasa • Bainugelak
Kale txiki 9 behea ARRASATE
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

## Igeltserotza

Izcue Irurzun
Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...
Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Leihoak

ARGI PLASTIK
*PVC, aluminio termiko eta poliuretanozko leihoen lantegia.*
Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

ION LEIHOAK
*Metal aroztegia, P.V.C. eta aroztegia*
*Lekuz aldatu gara!*
Debagoiena industrialdean gaude, 11. pabilioian.
Tel.: 943 79 11 35 - Faxa: 943 77 31 20

## Eraikuntzak

Arrasate eraikuntzak SL
Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

ZUTARRI S.L.
Eraikuntza enpresa
Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxa: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora